



**2016KO URRIAREN 21EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko urriaren hogeita batean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2016ko urriaren 6an egindako bilkurako akta.

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du Marian Zufiria zinegotzia ez zela bertaratu jasotzen dela, baina bere ezin etorria aurrez adierazi zuela ez dela jasotzen.

Gainontzean akta idatzita dagoen moduan onartzen da aho batez.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 81 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERROGEITA HAMAHIRU MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMABI EURO ETA LAUROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (53.632,89 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- KULTURAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Kultur arloko hainbat diru laguntza emateko proposamenen aurrean, Aran zinegotziak esaten du proposamenen alde daudela baina batzordea maiatzetik bildu gabe dagoela eta batzordearen bilera bat egitea eskatuko luketela. Hau esanda gero, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, honako proposamen hauek onartzea erabakitzen du:

- Lazkaoko San Benito Ikastolari.-

San Migel eguneko herri afarirako antolaketa lanetan aritzeagatik 800 €ko diru laguntza ematea.

- Amalur mendizale elkarteari.-

Esparru mendirako jira antolatzeagatik 470 €ko diru laguntza ematea.

- Jubilatuen Elkarteari.-



Sagardo dastaketako egunean, sagardo edalontziak saltzen aritzeagatik 122 € diru laguntza ematea.

IV.- BASHERRI EGUNEKO DIRU LAGUNTZAK .-

Landalur gaietarako zinegotzi arduradunak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, honako diru laguntzak onartzen ditu, aho batez:

- Baserritarrei.-

Basherri egunean parte hartzeagatik, bere espedienteetan aurkitzen den eranskinean xehatzen den baserritarrei eta zenbatekoen arabera, guztira 3.908,95 €.

- San Benito Ikastolari.-

Basherri egunean antolaketa lanetan parte hartzeagatik 394 €ko diru laguntza ematea.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

